

EUSKOTAR UMEEN ALDEZ

Euli baten edestia. (Euliak berak edestuta.)

*1933' garén Þurteko « Kirikiño saria »
irabazi duan idazlana.*

*Egilea : Azpeitia'tar Yulene andrea
(Aritokleta).*

« Oñilean erailtzen dan euliak bagilean bi anei gutxitu » Gaztelar esaera.

Ñork ikusiko ez zuan afautza txiki-txiki bat nintzan ni lenengoz.

Okoilu bateko zikinkerien gainean ipiñi ninduan nere amak beste afautza askorekin batean.

Egun batzuek gerotxoago erten nintzan afautzatik.

Aar zuri, txiki-txiki bat nintzan orduan.

Aste betean, neu nengoan zikinkeria yanda hizi izan nintzan. ¡Yaio-tzean yanari ugaria ta ona euki nezan arduratu bai zan nere ama!

Yan da yan, azi ta azi, ordu gutxiren bafuan erten zidaten egoak eta eulia izatera eldu nintzan.

Geroztik yoan etofi aundiak eta asko egin ditut. ¡Eta nik egin ditudan lanak eta eraman-ekafiak!

Zuek ikusi ez afen, anketan ile me-meak ditut eta ile oiekaz edozein gaitzen aziak batu ta eramaten ditut. Egoetan ere eraman nezake gaitza.

Zuek ez dezute sinistuko, ¡Ez ba, txikia bai-naiz! baiña nere gainean 6.000.000 azi eraman neizke.

¿Zer azi mueta?

Gaitz guztien aziak, napaferienak, biriketako gaitzenak, gornienak, tipuzenak eta abar.

Udan ume asko gaixotu ta iltzen dituan gaitz baten azia ere beti neurekin erabili oi-det, eta umea lo dagonean bere ezpain eta suduñean ibilketak egiten ditut, baita ere umeak aon erabiltzen duan txupetean, nai aifia mikrobio utziaz.

Zikinkeri guztietan ibiltzea da nere atseginiñk aundiena. ¡Zikinkerien gainean yaioa naiz ba!

Ez naiz ordeñ zikinkerietan bakafik ibiltzen. Baita ere okela, afai, gaztae, esne, opil eta onelako gauza gozoetan.

Zenbait zartxoa naiz, ez naiz ba aurten yaioa, igaz baizik; negu osoa sukaldoko epeletan igaro dedalako nago bizirik.

Nere aufetikoñ befirik ez det, baiña yakintsu batek diona egia ba'da, uda baten 6.000.000 ondorengo utzi neizke. Ez dago beraz gure

abenda amaituko dan bildurik, neguan bat edo beste bizirik gelditzen ba'gera.

Lufaren gaiñetik gure abenda kendu nai ba'dezute, guk a'autzak ipintzen ditugun lekuak, okoiloak, zakar-piloak egoten diran bazterak, a'andegiak eta abar garbi euki, zikinkeru guztiak e'fe, ta kare bizia bota ugari: ¡Kare biziak iltzen bai ditu ba gure a'autzak!

Baiña, etxeoandre batzuek oso maite gaituzte. ¡Maite ez ba'ginduzkete, ez lituzkie euli-k.....z zikindutako gauzik dendetan erosiko!

Gaur goizean bildur ikaraga'ia igaroa naiz. Esetan ia-ia i'fo nintzan. Il bear dedala etsita nagoalarik, etofi da etxeoandrea ta poliki-poliki atera nau. Gero, nik ainbeste mikrobio utzitako esneaz eman dio bere umetxoari biberioa.

Umea gaxotzen ba'da, ez du ama arek asko usteko zeñek gaxotu dion bere biotzeko semetxo kutuna. Tiputza etortzen ba'zaio,—« Ene, gu ez gera ba tiputzik dagoan etxean izan »—esango du.

Nik erantzun nezaioke—« Baiña esnetara erori baiño len, tipusdun gaixo baten ogearen azpian zegoan ontzi berarizkoan ibilita nengoan ordea ».

Lengo uda baten, Washington urian ¡¡guri egin ziguten guda gogo'ra!!

Leku guztietan gu a'apatzeko sareak zeuden. Lan gabe zeuden langi'e guztiak saregiñan ipiñi zituzten. Izpar-ingi batek 75.000 sare eman zituan. Eta txadon, etxe, a'andegi, arategi, denda, bultzi, tximist-burdi, txaide, enparantza ta leku guztietan, dana zan gu a'apatzeko sarea.

Gure azkena orduantxe izango zan, baldiñ an bezela beste leku guztietan, guda egin ba'ziguten.

Baiña ¡bai zera!

Gaur baiño naska aundiagorik artzen ez ba'digute. ¡Gizaldi batzue-tarako ba gera!

